



BEZERO SEGMENTUA

Proiektua **bi kolektibo mota nagusiri** zuzenduta dago:

1. **Gazteak (35 urtetik beherakoak)**

- Etxebizitza bat aurkitzeko zailtasunak dituztenak.
- Ingurune sozial batean bizi nahi dutenak.
- Balio ekologikoekin eta jasangarrieekin konprometitutako gazteak.

2. **Adinekoak (65 urtetik gorakoak)**

- Bakardadea edo isolamendua sentitzen dutenak.
- Konpainia eta segurtasuna bilatzen dutenak.
- Bizitza aktiboa eta komunitarioa mantendu nahi dutenak.

Ezaugarri hauek betetzen dituzten pertsonak bilatzen ditugu:

- Elkar laguntza, zaintza eta komunitatea baloratzen dutenak.
- Jasangarritasuna, energia berriztagarriak eta ingurumenarekiko errespetua bilatzen dutenak.
- Etxebizitza duina, konpainia, ongizatea eta parte-hartzea baloratzen dutenak.

Ingurune espezifikoak:

Atal honetan azaltzen da nori zuzenduta dagoen proiektua eta nork lagunduko digun. Gazteak eta adinekoak gure helburua dira, eta elkarrekin bizi nahi dute toki jasangarri batean. Gainera, badakigu zein diren gure lehakideak. Hipotekak eta alokaiuak oso ezagunak dira, batez ere gazteen artean.

-Merkatua:

Gazte (35 urtetik beherakoak) eta adineko (65 urtetik gorako) pertsonentzako merkatua da. Belaunaldi-arteko bizikidetza eta jasangarritasuna bilatzen duten pertsonak dira. Merkatu berritzailea da, gizartearen behar berriei erantzuten diena.

-Lehiakideak:

Bankuetako hipotekak, maileguak eta alokailuak.

-Bezeroak:

Gazteek etxebizitza eskuragarria nahi dute. Etxebizitzak oso garesti daude, gainera ez daude asko; adinekoek konpainia eta segurtasuna. Bi taldeek komunitate solidario eta jasangarri batean bizi nahi dute.



-Banatzaileak:

Bezeroarekin harreman zuzena nahi dugu (webgunea, sare sozialak) eta udalen/gizarte-erakundeen bidez. Komunikazioa ezinbestekoa da gure proiektua ezagutarazteko.